

BOOBIZI

Kanalak

Hasteko, gure produktuak bakarrik interneten bidez salduko ditugu, gure web orri ofizialan, *boobizi.com*. Modu horretan, bezeroen ongizatea bermatzea izango dugu helburu. Teknologia berriei esker, bezeroek erosotasun handiagoa izango dute gure ondasuna erosteko unean; lasai-lasai sofatik altxatu gabe bularretakoa erosteko ahalmena izango dutelako. Gainera, produktu aniztasun handiagoa izango dute aukeran eta hauek ere denda fisiko batean salduko balira baino merkeago. Horretaz gain, bezeroekiko arreta guztiz pertsonalizatua izango da, hauek baretasun osoz haien kezkak jakinarazteko. Guk geuk arduratuko gara zalantzak erantzuteaz, telefono bidez, *boobizi.com* webgunean egongo den txat-a erabiliz edo sare sozialen bitartez (*Instagram, Twitter, Facebook* eta *Tiktok* bereziki).

Banaketari dagokionez, behin produktua erosita, postaren bidez banatuko zen. *Correos* enpresa publikoaren bidez edo beste posta enpresa pribatuen bitartez bidaliko genieke gure produktua bezeroei. Horrela, beste enpresa batzuekin; lehen esan moduan, elkarlanean arituz.

Etorkizunean, denda fisikoetan saltzea gustatuko litzaiguke. Hasieran, gasteizko mertzeria famatu batean saltzea izango da gure helburua, emakume asko han haien bularretakoak erosten dituztelako. Horrela, gure produktuak bezero gehiago erakarriko ditu, esate baterako, internet erabiltzen ez duten hirugarren adineko emakumeak. Horrez gain, salmentak dendetan arrakasta izaten badute, eta gure enpresak hazten badu, gure hurrengo pausua supermerkatuetan saltzea izango da, adibidez, Eroskin, bertokoa delako.

Supermerkatuak hurbilagokoak izaten dira, eta jende gehiago joaten da hara. Honekin, gure bezeroengandik gertuago egotea lortuko dugu, eta baita ospe eta fama gehiago ere. Amaitzeko, behin hau eginda eta kapital eta bezero nahiko lortuta, gure azken jomuga gure lokal propio erikitzea da, honek kostu eta lan handia suposatzen badu ere.

Gure proiektua ezagutarazteko sare sozialetan, web-guneetan, orrialde feministetan, AECC erakundeetan eta hospitaletan produktua iragartzea da gure intentzioa. Era horretan jende gehiago gutaz jakitea ahalbideratuko zigun eta bezero gehiago izango genituzke.